



ZARAUZKO UDALA

**Zarauzko Udala
Kirol Departamentua**

**Zarauzko udalerriko irabazi-asmorik gabeko
kirol-klub eta –elkarteei 2026. Urtean, norgehiagoka-araubidean, dirulaguntzak
emateko deialdia**

XEDAPEN OINARRI HAUEK EZARTZEN DITUZTE ARAUTZAILEAK:

- Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE) eta hori garatzen duen Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE)
- Zarauzko udaleko dirulaguntzen plan estrategikoa 2024-2027 urterako (Udalbatzak 2024ko urtarrilaren 25ean onartutakoa) eta haien oinarri arautzaileak:
- Zarauzko udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (2024eko apirilaren 5eko GAO 66.zk).
- Kirol departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2024ko apirilaren 5eko GAO 66.zk)



ZARAUZKO UDALA

ZARAUZKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO KIROL- KLUB ETA -ELKARTEEI 2026. URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

1. Helburua
2. Eskaerak
3. Dirulaguntza emateko irizpideak
4. Diru-zuzkidura eta aurrekontuko partida
5. Ebazpena
6. Dirulaguntzaren erabilera justifikatzea
7. Publizitatea
8. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak
9. Araudia
10. Errekurtsoak

1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da Zarauzko kirol klub eta elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea, 2026.urtean zehar euren jarduerak garatzeko (2025-2026 denboraldirako, kirol denboraldia urte naturalarekin bat ez datorren kiroletan).

Dirulaguntza honako atal honetan oinarrituta eskatu ahal izango da:

- Zarauzko kirol-kluben eta -elkarteen ohiko jarduerak.

2. ESKAERAK

Dirulaguntza eskatu ahal izango duten kirol -klub eta -elkarteek:

- Herrian errotuta daudenak eta egoitza soziala eta jarduera nagusia Zarauzko udalerrian dutenak (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik).
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13 artikuluan aurreikuste duen egoeraren batean ez daudenak edo eta Udalarekin ez betetze egoerarik (ekonomikoa, baimenak eta bestelako) ez dutenak.

ZARAUZKO UDALEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAN ETA KIROL DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOETAN jarritakoaren arabera egingo dira eskaerak. Udalaren erregistro elektronikoro korrean aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta, hogeita hamar eguneko epean, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaerak erregistro elektronikoro bidez udalaren egoitzan aurkeztu behar dira, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, eta xedatzen den epearen barruan.

Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian jasotako baldintza guztiak onartzea.



ZARAUZKO UDALA

Dirulaguntzari dagokion deialdian eskatzen den dokumentazioa:

- a) Eskaera inprimakiak behar bezala osatuta.
 - a.1 Dirulaguntza eskaera orriaren inprimakia.
 - a.2 Erantzukizun adierazpenaren inprimakia. I eranskina
 - a.3 Hizkuntza ofizialen erabilera aurreikuspenaren inprimakia. II eranskina
 - a.4 Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa betetzeko zinpeko adierazpenaren inprimakia. III. eranskina
- b) Nortasunaren egiaztatzea (NAN, eraketaren eskriturak —dagokion erregistroan inskribatutakoak—, dagokion erregistroak egindako ziurtagiria, etab.).
- c) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- d) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitorpena, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- e) Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik dirulaguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

Oinarri hauek arautzen duten esparruan aurreko urteetan dirulaguntzarik eskuratu dutenek aski izango dute soilik aurreko ataleko a), d) eta e) puntuetan xedatutako agiriak aurkeztea.

Eskaera orria edo eta harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

3. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK

Esleipendun bakoitzarentzat dirulaguntzaren zenbatekoa ez da bere jardueraren aurrekontuaren % 50 baino handiagoa izango.

Ondorengo kontzeptuen artean banatuko da ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa, jarraian aipatzen diren ehunekoekin bat etorritik:

- 3.1. Ohiko lizentzien kopurua: % 50
- 3.2. Urola kostako Eskola Kiroleko programan jarduerak antolatzea: % 7
- 3.3. Kirol-ekitaldiak antolatzea: % 10
- 3.4. Ikasturtean klubean aktibo diren teknikarien titulazioak: % 5
- 3.5. Teknikarien prestakuntza: % 5
- 3.6. Kirol-txapelketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak: % 5
- 3.7. Hizkuntza, euskararen erabilera sustapena: % 5



ZARAUZKO UDALA

3.8. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna: %5

3.9. Herriar kolektibo zaugarrientzat ekintzak edo proiektuak: %8

Kopuru horiek zatitu egingo dira kirol-erakundeei atal bakoitzean adjudikatutako puntuazio osoarekin —puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek atal bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori kirol-klubak atal bakoitzean lortzen dituen puntuekin biderkatu da, eta horiek guztiak batuta zehaztu da dirulaguntzaren zenbatekoa. Atal bateko dirulaguntzaren ehunekoa ez bada banatzen aurkeztutako klubek ez duelako puntuaziorik lortu, eskatzaile izan diren guztien artean banatu da berau kopuru berdinetan.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.artikuluari jarraituz, aurkeztutako eskaera guztien artean dirulaguntzaren zenbateko guztia hainbanatu da.

Balorazio-adierazlea eta horien puntuazioak ondorengoak dira:

3.1.- Zarautzen erroldatutako federazioko kirolari-lizentziak (goi mailako kirolari izendatuak izan ezik):

- Federazioko kirol-lizentzia bakoitzeko puntu 1 emango da.
- Mendiko, ehizako edo arrantzako federazioko kirol-lizentzien kasuan:
 - Lehenengo 350 lizentziei, puntu bana emango zaie.
 - 350 lizentzietatik aurrera, bakoitzari 0,5 puntu emango zaizkio.
- Pilotako federazio-lizentzia bakoitzeko 4 puntu emango dira.
- Arrauneko edo herri kiroleko federazio-lizentzia bakoitzeko 2 puntu emango dira.
- Emakumezkoen lizentzia federatuak:
 - Emakumezkoen lizentzia federatu bakoitzeko 1,5 puntu emango dira (mendi, ehiza edo arrantza lizentziek ez dute puntuaziorik lortuko).
 - Arraun edo herri kiroleko lizentziei 3 puntu emango zaizkie.
 - Pilotako kirol lizentzia bakoitzari 3 puntu emango zaizkio.

3.2.- Urola Kostako Eskola Kiroleko egutegi-programan jardunaldia(k) antolatzea:

5 puntu emango zaizkio kirol-hastapeneko jardueren antolamenduari, baldin eta indarrean dagoen legedian ezarritako zehaztapenak betetzen baditu eta Urola Kostako eskola-kiroleko jardueren ikasturteko egutegi-programaren barruan bada.

3.3.- Kirol-ekitaldiak antolatzea:

Udalarekin kolaboratuz, Zarautzen antolatzen diren herri intereseko kirol-ekitaldi(k).

- Ekitaldian parte hartzen duten pertsonen kopurua 100 edo txikiagoa bada, 2 puntu emango dira.
- Ekitaldian parte hartzen duten pertsonen kopurua 100 baino handiagoa denean, 5 puntu emango dira.

Gehienez 5 puntu lortu daitezke.



ZARAUZKO UDALA

3.4.- Ikasturtean klubean aktibo diren teknikarien titulazio akreditatuak:

Entrenatzaile nazionala (edo baliokidea den) titulu bakoitzeko puntu 1 emango da;

- Entrenatzaile nazionala emakumezkoa bada, puntu bat gehiago emango zaio.
- Entrenatzaile nazionala izatez gain, Euskarako 3.hizkuntza eskakizuna edo baliokidea badu, puntu bat gehiago emango zaio.

Gehienez 5 puntu lor daitezke.

3.5.- Kirol-teknikarien formakuntza:

5 puntu emango dira Kirol-teknikariak formatzeko Zarautzen antolatzen diren ikastaroengatik (Udalak onartutako ikastaro ofiziala(k) izan beharko dira).

3.6.- Kirol-lehiaketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak:

5 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde historikotik kanpora egindako, gutxienez bi eguneko iraupeneko, kirol-txapelketa ofizialetan parte hartzeko ez ohiko joan-etorriengatik (ataleko faseak, txapelketetako fase finalak etab.)

3.7.- Hizkuntza: Euskararen erabilera sustatzea:

- 3 puntu emango dira jarduera euskara hutsez egiteagatik eta zabaltzeagatik.
- 2 puntu emango dira euskararen erabilera sustatzeko neurriak bilduko dituen Euskara Plana egin eta ezartzeagatik, bai jardueraren garapenean, bai erakundearen barne-funtzionamenduan ere.

Gehienez 5 puntu lor daitezke.

3.8- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna:

5 puntu emango dira jarduerak emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko genero ikuspegia kontuan hartu eta horretarako neurri zehatzak aplikatu direnean.

3.9.- Herriar kolektibo zaurgarrientzat ekintzak edo proiektuak:

Proiektua(k) antolatzeagatik 5 puntu emango dira.

4. DIRU-ZUZKIDURA ETA AURREKONTU-PARTIDA

Dirulaguntzak ondorengo ataletan oinarrituta eskatu ahal izango dira.

- a) Zarauzko kirol-kluben eta elkarten ohiko jarduerak.
- b) Dirulaguntzen zenbateko osoa: gehienez 6.560,00 euro.
- c) Aurrekontu-partida: 1 1401.481.02.341.03 2026(6046) “*Dirulaguntzak: Kirol*”.



ZARAUZKO UDALA

5. EBAZPENA

Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrak ezarritakoaren arabera egingo da ebazpena, eta administrazio-bidea amaituko du.

Organo eskudunak

- Instrukzioa: Kirol Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespena: Kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena: Alkatetzak edo Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorrita.

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 82 artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da, prozeduran interesdunek agertutako egintzak eta argudiatutako alegazio eta probak bakarrik agertzen badira edo kontuan hartzen badira izan ezik.

Eskariak ebazteko epea gehienez ere hiru hilabetekoa izango da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik; eta ordurako esan-bidezko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi egin direla ulertuko da.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legeak aurreikusitakoaren arabera. Lege horretako artikuluetan jasotako xedapenen arabera egingo da jakinarazpena.

Udalak argitaratu egingo ditu emandako dirulaguntzak, 38/2003 Lege Orokorrek, Dirulaguntzei buruzkoak, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. DIRULAGUNTZAREN ERABILERA JUSTIFIKATZEA

ZARAUZKO UDALEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAN eta KIROL DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOETAN jarritakoaren arabera egingo da dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa, eta 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Justifikazio kontuaren modalitatea erabiliko da, gastuen frogagiriak erantsiz.

Justifikazio-kontuak informazio hau izango du:

- Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko **jardueramemoria** bat, gauzatutako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.
- Hizkuntza ofizialen erabilera errealaren inprimakia.



ZARAUZKO UDALA

- **Memoria ekonomiko** bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko; honako hauek erantsiko dira:
 - a) Balantze ekonomikoa, diruzainak sinatuta eta entitatearen zigiluarekin; diru-sarrera eta -irteerak zehatz mehatz adierazten dituen urteko likidazio ekonomikoaren taula.
 - b) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen.
 - c) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko frogabalioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
 - d) Dirulaguntza hau onuradunek lor ditzaketen beste laguntzekin bateragarria da. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehetu bat, zenbatekoa eta beren jatorria adierazten dituen.
 - e) Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.□

Dirulaguntzaren erabilera justifikazioak akatsen bat badu edo osatu gabe badago, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

7. PUBLIZITATEA

Publizitate-euskarri eta komunikabide guztietan Zarauzko Udalaren irudi instituzionala eta “Kirola Zarautz bizi bizia” irudia jarriko dira.

Zarauzko Udaleko Kirol Departamentuak zehaztuko du kasu bakoitzean zein baldintza bete behar diren programa edo jarduerak jaso duen finantziazio publikoaren berri emateko garaian. Kasu bakoitzean zehaztu ahal izango ditu zein izango diren euskarriak, kopurua, publizitatearen tamaina edo eta forma, etab.

8. DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK

Zarauzko Udaleko Kirol Departamentuak zehaztuko du zein gastu hartuko diren diruz lagundu daitezkeen gastutzat kasu bakoitzean.

9. ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); Zarauzko Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea



ZARAUZKO UDALA

(2024eko apirilaren 5eko GAO 66.zk.); eta Zarauzko Kirol Departamentuko dirulaguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (2024eko apirilaren 5eko GAO 66.zk).

10. ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka berraztertzeke errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; edo zuzenean inpugnatu ahal da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak, bi kasuetan, deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.